

LAN-ESKAINNTZA

Euskara, berdintasuna eta berrikuntza sozialeko proiektuetan aritzeko aholkulariak

Euskal gizartearen erronkei aurre egiteko aholkularitza eskaintzen dugu, batez ere, alor hauetan: euskararen normalizazioa, gizon eta emakumeen berdintasuna eta herritarren partaidetza; baita beste erronka batzuekin zerikusia duten berrikuntza sozialeko proiektuetan ere. Hain zuzen, alor horietan erakunde publikoei zein pribatuei aholkularitza teknikoa eta metodologikoa eskaintzeko lantaldea handitu nahi dugu.

Zer eskaintzen da:

- Diziplina anitzeko lantalde euskaldun eta dinamiko batean aritzea.
- Lanaldi osoa eta 6 hilabeteko kontratua, luzagarria eta mugagabea bihurtzeko aukerarekin.
- Lan-ordutegi malgua eta etxetik lan egiteko erraztasunak
- Etengabeko garapen profesionala

Zer eskatzen da:

- Unibertsitate titulua
- Euskara-maila altua: EGA edo baliokidea
- Gidatzeko baimena
- Berdintasunean aritzeko: berdintasuneko graduondokoa edo masterra izatea, edo alor horretako unibertsitate-ikasketa espezializatuak izatea.

Balioetsiko da:

- Esperientzia edo graduondokoa izatea hauetako alorren batean edo batzuetan: euskararen normalizazioan, berdintasunean, partaidetza eta berrikuntza sozialean.
- Proiektuak kudeatzen esperientzia izatea.
- Prozesuak diseinatzeko eta planifikatzeko zein taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea.
- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna izatea.

Gure lantaldearen parte izan nahi baduzu, bidali zure CVa helbide honetara: aholkularitza@elhuyar.eus. Gaian jarri **aholkularitza-kontratazioa**.
